

Arrasate

1998ko
Irailak 25
421. zenb.



ATB

Aurpegi
eta saio berriak

IKUSPEGIA: IKER BARANDIARAN • KIROLAK: NESKEN FUTBOL TALDEA
EUREN IKUSPUNTUTIK: EDORTA ARANA • KULTURA: TXOS AZURMENDI

HIZKUNTZEN MUNDUA



**Matrikula
Epea Zabalik
98-99 IKASTURTEA**

Informa zaitez orain !



AHIZKE S.COOP
Avda. de Alava, 4 - 20500 ARRASATE (GIPUZKOA)
Tel.: 943 - 712055 Fax: 943 - 712181
E-mail: secretaria@cim-idiomas.com
http: www.cim-idiomas.com
Olakua, 14 - 20560 ONATI (GIPUZKOA)
Tel. 943 - 716000



bai&by

- ▶ Hizkuntza eta maila guztiak.
- ▶ Ordutegi malguak.
- ▶ Mediateka zure esku dohainik.
- ▶ Haur, gazte eta helduentzat.
- ▶ Multimedia sistemak.

**HOTEL
MONDRAGON**
Biteri Etorbidea, 16
Tel.: 943 71 24 33
20500
ARRASATE - MONDRAGON
(Gipuzkoa)

KAFETEGIKO MENUA

*Hasierakoak pikatzeho
Legata budina
Urdaiagpiko Iberikoa
Antzara moussea
Zainzuriak*

Itsaski Krema

*Bakailaoa Pil-pilean
Idi Buztan erregosia Rioja Ardo erara*

*Tarta Tzozkiarekin
Kafea*

Ardoak:
*Marin Palacios Ardo Beltza
Luis Campanas Ardo Gorria
Cava:
Bousset*

Prezioa:
3.700 pta. (BEZa barne)

**Elegante jantzi eta
elegante afaldu!!**

JATETXEKO MENUA

*Hasierakoak pikatzeho
Legata budina
Urdaiagpiko Iberikoa
Antzara moussea
Zainzuriak
Otarrauskak*

Ganba eta Porru Voulou-vant-a

Salda

Bakailaoa Klub Ranero erara

Saihetsartekoa Piper Morroiekin

*Tarta Tzozkiarekin
Kafea*

Ardoak:
*95eko Rioja Bordon Crianza
Fran Feudo de Chivite Ardo Gorria
Cava:
Codorniu 1551 Brut Nature*

Prezioa:
5.000 pta. (BEZa barne)



**Maritxu
Kajoirako
menuak**

Ospitalera nor?

U da aurreko azken alean gai berari buruz idatzi banuen ere, bi arrazoi pisutsu ditut gaztetxea berriz aipatzeko. Bata, nire aurreko idatzia, luzeegia zelako, moztu behar izan zen. Eta bestea, aspaldiko zurrumruren hari berean, irailaren 13an, igandean, *Diario Vas-koko* Arrasateko orrialdean argitaratutako berria.

Nire aurreko idatzia hasiera ematen zion argudioa, bidean galdu zena, honako hau da: aurreko udalak gaur egungo gaztetxearen etorkizuna edo kokapena ziurtatzeko asmotan, frontoi berriaren proiektuan hau eta beste talde batzuen lokalak jartzea aurreikusita zuela.

Hirutarikoak ezarritako proiektu berrian, ordea, pilotalekua besterik ez da ageri. Baliteke udalak gaztetxea betiko kokapenetik mugitzeko beharrik ez ikuste, baina zurrur-



Iker Barandiaran

murruak daudenean, erreka azpijokoa dakarrela esan ohi da.

Bi aste dela, DV egunkarian agertutako izenburuen arabera (testuaren baitan ez baitzekerren ezer), ospital zaharrean kultura etxe bat egiteko aurrekontua prestatzen hasi dira. Zurrumurrak egiaztatzen hasi dira, beraz. Bitartean, dagoeneko kulturaz jositako erai-

kuntza hori osatzen dugun talde zein gazteok ez dakigu ezer. Zein kultura etxe mota egin nahi dute? Badakite edo oroitzen dira eraikuntza honetan gazte eta ez hain gazteren ekimen ugari egiten direla?

Gaztetxea topagune gisa erabiltzen duten gazte guztiez gain, hor dira kontzertuak, hitzaldiak, erakusketak, filmak, etab., etab... horretaz guztiaz gozatzeko parada dago. Behean, berriz, hiru bat rock taldek entseiatzen dute. Hauen ondoan bilerak egiteko eta

Lastertasun Handiko Trenaren aurkako talde antidesarrollistek erabiltzen duten lekua dago. Hau guztia gutxi balitz, gazte zein adineko jendez osatutako margolari taldea, txalapartariak, pandero joleak, disc-jockeyak, Hitza eta Ekintza komunikazio taldea, irarlangileak, larrua lantzen duen jendea, margolari zein artista gazteagoak, umeentzako ludoteka, etabar aurki ditzakegu, beste inor ahaztu ez badut, behintzat.

Dirudienez, Gazte Bulegoak ere ez daki proiektuari buruzko berri zehatzik. Arraroa benetan! Agian udalak aipatutako taldeek dagoeneko osatzen dugun "etxe kultural" honetan hobekuntzak burutu nahi ditu isilpean, herriko gazte guztien mesederako, Gabonetako opari sorpresa gisa. Honela balitz, sartuko ginatke kalabazan. Baina kalabazak aspaldiko kontuak direnez, eta gure kalabazan uste hau sartzen ez zaigunez, hobe pentsatu beharko dugu denboraz gauzak azaldu eta eskaintza edo elkarrizketak egin beharrean, beraien kontu gauzak aurreratu nahi dituztela. Bada garaia gazteekin harremanetan jarri eta asmoak zintzo erakuts ditzaten gutxienez. ■

"Badaki udalak ospital zaharrean dagoeneko kultura ekimen ugari egiten dela?"

"Jantzi genuen lehen futbol taldea Eibar izan zen, 1991n. Gaur egun, ordea, Real Sociedad, Alaves, Osasuna eta Gijongo Sporting ere jazten ditugu"

Esteban Uribesalgo

12.000

kamioikada lur botako dira Santutxoko harrobian

Kanpazar enpresak, izen bereko harrobia kudeatzen duenak, ia 100.000 metro kubiko lur, 12.000 kamioikada inguru, botako ditu Santutxoko harrobian. Ondoren landareak sartu nahi ditu, ingurua berreskuratzeko. Harrobia berez Calcinor enpresa donostiarrarena da, Kanpazar enpresaren kide-arena.

ITURRI ONETIK

Laster Internet merkeago Arrasaten

Interneten sartzeko Euskalnet zerbitzua erabiltzen duten arrasatearrek ez dute zerbitzua ordaintzen, baina bai telefono deiak eta larrutik, gainera, Telefonicak sendo igotituelako prezioak.

Euskaltelek hiru bidegurutze ditu Interneteko deiak jaso eta bideratzen dituztenak: Bilbon, Donostian eta Gasteizen. Mondragoetarek, beraz, Donostiara deitu behar dute. Dei hori ez denez lokala, garesti irten da, Telefonicaren prezioen arabera.

Aurten bertan, baina, Euskaltelek laugarren bidegurutzea egiteko asmoa du. Non? Arrasaten bertan. MCCk ba omen du zerikusirik erabaki horrekin. Hori dela eta, arrasatearroi askoz ere merkeago egingo zaigu Internet erabiltzea, dei guztiak Arrasatera egin beharko ditugulako. Lokalak izango dira, beraz.



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK
ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otxalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 77 05 65. Faxa: 943 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readysoft.es
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Marian Porcel, Maider Osa. **Publizitateak:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo, Arantza Lagunilla. (Tel.: 943 77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain (Tel.: 943 79 02 26). **Disenitza:** Txos Azurmendi. **Asteburuetako berriemakila:** Lami Urbaren. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Maria del Campo, Iban del Campo, Ixaro Artoia, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Salla, ASA taldea, Besaide M. E., Karmelo Uribarren, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Jose Mari Astigarra, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopi, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barrena. **Banaketa arduraduna:** Jaxone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Legedordialdea:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Franko konzertatua.** **Inprimategia:** Gertu Kooop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen adizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Jon Ruiz de Zarate.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiarin laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileran laguntza

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala 25
 - Zarugalde, Zabala
- Larunbata, 26
 - Ruiz, Maala
- Igandea, 27
 - Morales, San Andres
- Astelehena, 28
 - Azkoaga, Ferrerías
- Astearte, 29
 - Español, Iturriotz
- Asteazkena, 30
 - Korkuera, Musakola
- Osteguna, 1
 - Egunez: Irizar, Erguin
 - Gauez: Puy, Bergara

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 79 53 00
 Iguatorialdea 943 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 943 79 39 00
 (emakumeak) 943 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11
- Gurutze Gorria**
 Bergara 943 76 55 76
- DYA**
 Antzuola 943 78 71 57
- Anbulatorioak**
 Arrasate (Larrialdiak) 943 79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria 943 77 03 46
 • Espezialitateak 943 77 05 78
 943 77 12 64
 Oñati 943 78 08 52
 Eskoniatza 943 79 98 58
 Aretxabaleta 943 79 74 58
 Aramaio (945) 943 45 51 16
- Anbulantziak**
 Gipuzkoako ambulantiak 943 45 87 44
- Udaltzaingoa**
 Oñati 943 78 04 11
 Bergara 943 76 14 69
 Arrasate 943 79 14 39
 Aretxabaleta 943 79 10 52
 Eskoniatza 088
- Ertzaintza**
 Arrasate 943 79 71 99
- Suhiltzaileak**
 Udal taldea 943 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 088
- Matxurak**
 Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
 Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 943 79 78 44
 943 79 76 78
- Garraioak**
 Taxiak 943 79 12 22
 PESA 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**
 Iturbide Egoitza 943 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57
- Kontsumitzailearentzako informazioa**
 KIUB-OMIC 943 79 51 55
- Monterron liburutegia**
 Monterron 943 77 01 05
- Irratia**
 Arrasate Irratia 943 79 58 77

LAGUNTZA JABILORENTZAT

Aupa lagunok! Hemen gaituzue berriro, zuen laguntza eskatzeko asmoz. Jakinarazi nahi dizuegu Maritxu Kajoi egunean taberna zabalduko dugula, lehen "Tio Tom" zegoen lekuan.

Eta, bide batez, gogorarazi nahi dizuegu dagoeneko kalean dituzuela errifak salgai.

Eskerrik asko aldez aurretik eta beste bat arte.

Jabiloren lagunak.

EUSKO IKASKUNTZAREN ADIERAZPENA

Eusko Ikaskuntzaren Batzar Iraunkorreko Batzorde Akademikoak egunotan Euskal Herrian sortzen ari den bakebide berriaren aurrean bere bozkarioa adierazi nahi du, argi eta garbi utziz benetan gogo onez ikusiko lukeela euskal hiritar guztiak parte hartzen gure herriarentzat irekitzen ari den bake eta askatasuneko etorkizunaren eraikuntzan.

Hala bada, gizarteko talde guztiak animatzen ditu ehaleginik handiena egin dezaten helburu hori bete dadin.

Eusko Ikaskuntza

AITOR HAUNDIXARI

Arbolapetara joan gara eta ez zaitugu ikusi. Amamak esan digu eraman egin zaituztela. Eraman? Nork?, nora?, zergatik? Laster etorriko zarela. Laster... baina noiz? Etorri ya! Bestela, zeinekin ibiliko gara txatxilipurdika?

Aitaxok esan digu Mari-txu Kajoi egunerako ez bazara etortzen txakolina alferrik galduko dela. Muxu handi bana.

Hasier eta Aitor txikia

SJB BERRIKUNTZA TALDEAREN OHARRA

San Joan Bataiatzaile Berrikuntza Batzordeak zera adierazi nahi dizue parrokiako megafonia dela eta.

Eliza barruaren sonoritate arazoei erantzun nahian, megafonia sistema on bat, modernoa eta nahiko konplikatua ez adituentzako, jarri genuen.

Ez dakigu nola —gremio eta jende asko ibli da sakristian gelditzen ziren lantxo eta altzariak bukatzen—, baina guk konpondu ezin genituen arazo serioak ematen hasi zen megafonia sistema.

Asko sufritu dugu guztiok azken hamabost egun haue-tan eta sentitzen dugu benetan sortu diren desegokitasunak.

Astelehenetik lanean dago berriro megafonia eta ongi entzuten da; hala ere, elizaren sonoritatea hobe daitekeela eta, lanean segitzen dute teknikoeak.

Segi, orain arte bezala, zuen laguntza eta konfiantza ematen. Gelditzen diren lanak eta zailtasunak ere gaindituko ditugu eta.

Jaso itzazue gure agurrik eta eskerronik beroenak.

San Joan Bataiatzailearen Parrokia.



Ongi etorri Ubane!

Kazetari berria dugu Arrasate Pressen. Ubane Madera kazetari plentxiarra da. 25 urte ditu, eta Euskal Herriko Unibertsitatean ikasi zuen kazetaritza, Leioan. Aste honetan bertan hasi da lanean. Ongi etorri, Ubane.

Honekin batera, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu Marian Porceli gure artean egin duen lanagatik. Zortetik onena opa diogu proiektu berrietan. Agur Marian!


Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
 Iturriotz, 9 • ARRASATE
 Tel.: 79 81 82

UGARAN jatetxea
 Garagartza auzoa
 Tel.: 79 76 58
 ARRASATE

M MEMESA
 Industria hornidurak
 Tel. 71 24 25


Neurri berezirik hartzen duzu lapurretak direla eta?

Udara aldean etxe askotan sartu dira lapurrak Arrasaten.




Iñaki Arana
(36 urte)
langilea

Ez, zertarako? Daukadan gutxia ez dut uste lapurtuko didatenik.




Izaskun Ezpeleta
(32 urte)
langabea

Ez, neurri berezirik ez. Badakit azken aldian lapurretak izan direla, baina zuri ez zaizula gertatuko uste duzu.



German Gonzalez
(60 urte)
Erretiratua

Ez. Hartu egin behar direla bai, baina ez dut hartzen.



Iñaki Perez
(64 urte)
Erretiratua

Giltza berezia daukagu eta giltzaz ixten dugu kanpora ateratzean, baina bestela ez.



Ana Unzalu
(51 urte)
Etxekoandrea

Ez dut neurri berezirik hartzen. Betidanik atea giltzaz ixten dugu, baina hori baka-rik.



Sylvie Schiettekatte
(33 urte)
Erizaina

Opor ostean gure atarian lapurtu zutela esan zidaten. Orduetik, bost minuturako izan-da ere, atea giltzaz ixten dut.



Ivan Arrocha
(24 urte)
Langilea

Segurtasun sarraila daukagu eta etxean inor ez dagoenean ixten dugu. Nire atarian lapurreta izan da oraintxu.



Alberto Serrano
(37 urte)
Langilea

Ez, atea giltzaz itxi eta besterik ez dugu egiten. Hala ere, neurriak hartzea ondo legoke.

IRATI TABERNA

BIHAR 26. SKA-FESTA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11 ARRASATE

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

*Izan zaitez zure osasunaren lagun.
Horretan guk lagunduko dizugu.*

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34

Arrasate

LANAK

MUSAKOLAN

Asfaltatze eta konpontze lanak A-20 eremuan.

AZATZA ETXEETAN

Monterron-Musakola pase-alekuko lanak.

ARRASATE PASEALEKUAN


Pasealekua konpontzeko lanak.

OTALORAN

Pilotalekuaren lanengatik kamioiak arituko dira.

URIBARRIN

Uriburu kalean eskailerak egiten ari dira.



Biztanleak: 24.257
Eremua: 33 Km²
Garaiera: 211 metro

Eguraldiaren aurreikuspena



OSTIRALA 25



LARUNBATA 26



IGANDEA 27

Tarteka euria botako dute lainoak estaliko dute zerua. Zaparradaren bat edo beste bota dezake egunean zehar.

Lainoak izango dira nagusi. Ekaitz zaparradaren bat ere egin dezake. Hala ere, haizeak Hegoaldetik joko du.

Erabat lainotua. Lainoek tarteka ekaitza ekarriko dute. Temperatura ez da aldatuko eta haizeak mendebaldetik joko du.

Ilargia



Ilgora

Astelehenean, irailaren 28an, ilgora izango dugu. Bentzeslao, Martziar eta Lorentzoren egunean.

Mezak

Parrokia

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean:

09:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz)

12:30 (elebiduna)

San Frantzisko

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean:

09:00 (euskaraz)

10:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

19:00 (elebiduna)

Uribarri

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean:

11:30 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

San Andres

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean

10:00 (erdaraz)

11:00 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

Santa Teresa

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean


10:30 (erdaraz)

11:30 eta San Isidron (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

Urkuluko uraren maila

%80,1



Distantziak


Arrasate

121	Baiona	
690	579	Bartzelona
57	170	620 Bilbo
1.159	1.038	2.883 1.207 Brusela
72	50	529 119 1.088 Donostia
40	180	530 66 1.206 118 Gasteiz
107	120	437 159 1.180 92 93 Iruñea
391	519	621 395 1.556 469 351 407 Madril
864	743	1.113 911 296 792 910 884 1.260 Paris

ARKAUZ

sukalde integrala

- Ordenagailuz egindako proiektuak
- Liderrak muntaketan
- Betiko muntaketak

FAGOR 



Mitarte, 3 • ARETXABALETA • Tel. / Faxa: 77 04 55

**ERAKUSKETA
BERRIZTUA!**

**ALTZARI-DISEINUA
ETA APAINKETA**



**ZAPATU
ARRATSALDETAN
ZABALIK!**

Araba etorbidea, 20 • ARETXABALETA • Tel./Faxa: 943 79 23 51

Grupo Arkauzen denak dira abantailak.
Zatoz, eta daukaguna ikusi bezain laster, etxera eraman nahi izango duzu.
Aprobetxa itzazu Grupo Arkauzen abantailak.

25 ostirala

■ ZINEA

Promesas Incumplidas, Alai zineman, 22:00etan.

■ SAN MIKELAK
GARAGARTZAN

19:00etan hasiko dira jaiak ikurriñaren igoeraz, etxaffle-ru eta bonba japoniarren jaurtiketarekin. Kalejira, buruhandi eta txistulariak alaituta. 22:00etan Eguzki taldearen dantzaldia eta 24:00etan Lamina eta Neanderthaldeko gizonei harrera. Ostean, dantzaldia.

26 larunbata

■ ZINEA

Mr. Magoo, Alai zineman, 17:00etan. *City of Angels* 19:30etan eta 22:00etan.

■ SAN MIKELAK
GARAGARTZAN

12:30etan Euskal Dantzak erakusketa Txikitxu taldearekin. 17:00etan Gorritiren animaliak. 18:30etan futbol partida jokatu da, gazte eta zaharren artean. 19:30etan Itziar, Nerea eta Arantza trikitilariekin, txikiteo eta erromeria. 22:00etan dantzaldia Txinparta taldearekin. 24:00etan bolo txapelketa jokatu da auzokideen artean. Goizeko 04:00etan, txokoladata.

■ GUDARI EGUNA

Gudari Eguna dela eta, kale agerraldia egingo da arratsaldeko 19:30etan. Agerraldia, Seberotik aterako da.

■ ALKARTETXEAREN
XII. URTEURRENA

Eusko Alkartasunak alkartetxearen XII. urteurrena ospatuko du. Hildako alderdikideen omenezko meza esango da San Frantzisko elizan, 12:00etan. Bi ordu berandua go bazkaria egingo dute alkartetxean.

■ APOTZAGAKO JAIAK

Meza nagusiak emango die hasiera jaiei, goizeko 11:00etan. 11:30etan kanpai errepika eta suziriak. 13:00etan Auzo Etxe elkartearen salda eta buzkantzak izango dira, trikitixaren soinuak alaituta. 14:30etan familiarteko bazkaria. 17:00etan mus txapelketa. 30.000 pta. banatuko dira saritan. 20:30etan bertso afaria egingo da Auzo Etxe elkartearen, Sebastian Liza-so eta Andoni Egañarekin.

■ AZOKA EKOLOGIKOA
ARETXABALETAN

Nekazaritza ekologikoaren eta etxeko patxaranaren IV. azoka egingo da Aretxabaletan. Azoka San Mikel jaien egitarauaren barruan antolatu dute. Gipuzkoan sasoi honetan egingo den azken azoka ekologiko berezia izango da.

■ SAN MIKELAK
GARAGARTZAN

Eguerdian meza esango da auzoko hildakoen alde. 12:30etan haur jolasak eta ondoren Vermout dantza. 14:30etan herri bazkaria eta ondoren mus-briska txapelketako finalak. 18:30etan, erromeria Txinparta taldearekin.

■ APOTZAGAKO JAIAK

XIII. Haur Marrazki Lehiaketa egingo da 11:00etan. 12:30etan meza nagusia esango da eta 13:30etan marrazki lehiaketako sariak banatuko dira. Ondoren, luntxa eskainiko da Auzo Etxe elkartearen, trikitilariak alaituta. 14:30etan familiarteko bazkaria.

28 astelehena

■ ZINEA

City of Angels, Alai zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

27 igandea

■ ZINEA

Mr. Magoo, 17:00etan eta *City of Angels*, Alai zineman, 19:30etan eta 22:00etan.

29

asteartea

■ ZINEA

City of Angels, Alai zine-
man, 19:00etan eta 21:30etan.

■ SAN MIKELAK GARAGARTZAN

19:00etan meza auzoko
zaindariaren omenez. Ondo-
ren auzokoentzako luntxa
Auzo Etxen.

■ BILERA MUSAKOLAKO KIROLDEGIAN

Musakolako eta
Iturripeko pilotalekuak,
futbol, tenis eta squasheko
zelaia alokatu nahi
dituztenek, bilera izango
dute irailaren 26an,
goizeko 11:00etan.

■ IKASTARO BERRIAK

Familia eta Gizarte
Hezkuntzarako Zentruak
ikastaro berriak antolatu
ditu. Ostegunetan
16:00etatik 18:00etara
Emakumea eta Kultura:
Psikologia. Astelehenetan
09:00etatik 11:00etara,
Ohialak apainketan.
Astelehenetan 16:00etatik
18:00etara, Buztingintza
Hastapenak: Raku teknika.
Astearteetan, 16:00etatik
17:00etara, Areto Dantzak:
saltsa, merengea...

■ GOIKOBALU TXIKI

Kantuan aritu nahi
duten 8 eta 16 urte
bitartekoentzat, Goikobalu
Txikik bilera egingo du
irailaren 30ean,
arratsaldeko 20:00etan,
Gazteluondoko San
Frantzisko Xabier
Ikastolan. Hantxe izango
dira Rakel Murgiondo
zuzendaria eta Maider Ruiz,
zuzendari laguntzailea.

■ LENIZ ZERAMIKA ESKOLA

Arrasateko Leniz
Zeramika Eskolak,
hastapen ikastaroa
antolatu du, urriaren 5etik
aurrera. Ikastaroa Jabier

Mercaderrek eskainiko du
eta saioak astelehenetan
eta asteazkenetan izango
dira, 19:00etatik
21:00etara. Matrikula
3.500 pta. kostako da.
Izen ematea irailaren
30ean amaituko da. Berri
gehiago, 943 79 87 95
zenbakian.

■ DANTZA IKASTAROA

Lore Gazteak dantza
taldeak euskal dantzak
izeneko ikastaroa antolatu
du. Urriaren 9tik Santo
Tomasak arte izango da,
ostiralero, 19:00etatik
20:30ak bitartean.
Matrikula, 1.000 pta.
Karibeko dantzak nahiago
dituena, berriz, Musakolako
saloian du parada ona. Bi
maila emango dira:
hastapen eta sakontze.
Lehena urriaren 5etik
azaroaren 9a bitartean.
Bigarrena azaroaren 11n
hasi eta abenduaren 16a
arte. Matrikula, 4.000 pta
(ikasleek eta langabeek
2.500 pta). Berri gehiago
Gazte Bulegoan.

■ GERIATRIA IKASTAROA

Familia eta Gizarte
Hezkuntzarako Zentruak
Geriatriciaren inguruko
ikastaroa antolatu du. Hiru
betebehar eskatzen dira
ikastaro honetan parte
hartzeko: emakumea izatea,
eskola graduatua edo titulua
lortzeko konpromisua eta
enplegu eskatzailearen
txartela izatea. Izena
emateko epea irailaren
30ean amaituko da.

■ KATIXIMA

Eskolak datorren
astelehenean hasiko dira.
Lehen mailarako izena
eman ez dutenek aukera
izango dute izena emateko,
astelehenetik osteguna
bitartean, 18:00etatik
aurrera.

■ YOGA IKASTAROA

Arrasateko Yoga
Elkarteak ikastaroak
hasiko ditu irailaren 28an.
Interesatuak 943 79 66 98
edo 943 79 35 76ra deitu
dezakete. Honekin batera,
"Nork bere burua zaintzeko
ikastaroa" antolatu du.
Asmoa da zenbait kultura
eta tradizioen gimnasia
terapeutikoak eta nork
bere burua zaintzeko
ariketak elkartzea. Luzatze
ariketak, masajeak eta
automasajeak, arnasa
hartzea eta Txinako osasun
ariketak landuko dira,
besteak beste. Eskolak
asteartea eta ostegunetan
izango dira, 19:00etatik
20:30etara. Interesatuak
Jose Luis Iñarra kalera joan
daitezke edo 943 77 01
33ra deitu.

● **Txitxinpe** ●
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 943 - 79 67 76

 **MARKO-JARTZEAK**
ALDEDI
Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84

**FELIPE
MADINA
ZURAK**
Zarugalde, 40 ARRASATE
Tel.: 943 79 13 78

USTEAK USTE

Menia

Etak su etena aldarrikatu du, menia. Lizarrako itunaren ostean esan zitekeen etor zitekeela horrelako zerbait, baina inor ez zegoen seguru. Azkenean menia gure artean dago.

Orain zazpi bat urte sortu zirenetik **ETA** gai nagusi izan duten irratietako lagun hizketaldiek oraindik ez dute ezpainetan izan duten betiko leloa aldatu. Horregatik, **ETA** menia aldarrikatu zuenean, denek **ETA**ren amarrutzat jo zuten.

Zoritxarrez, horrek eta zenbait politikariren jarrerak eragin zuzena dute espainiarren artean. Azken galdeketek erakutsi digute espainiarren artean gehienek amarrutzat jotzen dutela su etena. Euskal Herrian, aldiz, kontrakoa zen egia: gehienek pozez beterik hartu zuten **ETA**ren iragarpena.

Lan asko egin beharko dugu batzuen eta besteen arteko leize hori betetzeko. Alde horretatik, txalotzekoa da Arrasateko Udala osatzen duten alderdiek meniarri egin dioten harrera.

Joxe Aranzabal



Su etena eta estropadak

Edorta Arana *

ETAK “esperantzaz beterik ekiten dio (la) fase politiko berri honi”, esan zuenetik, zazpi egun pasatu dira.

Bizitzan bezala, politikan ere dena kontrolatzerik ez dagoenez, hemendik aurrerakoak ez daude erabat Barne Ministeritzaren esku, ezta **ETA** gidatzen dutenen menpe ere. Baina, horren jakitun izanik ere, **ETA** abian jarri du, askoren ustez, espektatiba, jarrera eta esparru berrietarako makineria. Su etenaren aurrean iritzi ezezkorra erakutsi dutenek, aldiz, “eszeptizismoa” aipatu dute.

Su etenak, neure ustez, lanerako (borrokarako, nahi baduzu) baldintza berriak jartzen ditu. **ETA** bere oinarriak zehaztu ditu zeregin horretan: “ardura osoki bere gain har dezala” herritarrak. Agintean daudenen jarrera **ETA**rena bezain irekia izango ote den ikus-teko dago oraindik. Politikaren esparruan ez dakigu

gehiengoaren txilindroiak jokoz eta legez kanpo utziko dituen gustukoak ez dauzkan alderdi zein sindikatuak. Ez dakigu **Epailetzak** eta **Administrazioak** berea duten legea erabiliko ote duten presoek kasuan edo egunkariak eta irratiak ixten segituko duten. **Poliziak** aldatuko ote duen gizartea kontrolatzeko joera eta komisaldegietako dinamika beldurgarria. **Komunikabideak** zabalduko al dira, modu zintzoan eta orekatuan, iritzi guztietara.!

Su etena, sasoi honetan ikusten ditugun estropadetan bezala, arraunari eragiten hasi

eta poliki-poliki ontzia mugitzen hasteaz konpara daiteke. Palakada asko emanez gero, arin joango da trainerua, baina astiro jardunda ere, aurrera egingo du, behin abiatuta.

Lehen aipatutako “eszeptizismoa” ez dut nik inguruan usaintzen. Orain arte, hainbat esparrutan “jotafuego” ibili direnek garbi dute negoziazio politikoaren lehenasuna. Eguneroko ilusio eta lanerako gogoaren abiadaz, paperik gabeko etorkinen gaiari heldu diote, arrazakeriari aurre egin eta lan kontratu lotsagarrien arazoak konpontzen hasi. Osasuna eta gainontzeko zerbitzu publikoak unibertsalak, euskaldunak eta doanekoak izan daitezten borrokatu gura dutenak ezagutzen ditut. Ez dira gutxi bortxaketak eta emakumezkoak gaizki tratatu eta jipoitzearen kontra eta esku-bide berdintasunaren alde gogor segituko dutenak. Intsumisioa armaden desegiteaz lotzen dutenak ere gogotsu daude ekinean. Ez dira lanean hasi **ETA** su etena aldarrikatu zuenean, baina seguru ez direla “eszeptiko” gelditu. **Etorkizunarekin** dute konpromisoa eta, egun, lehen bezala, borrokarako metodoa dute aztergai.

Azterapausurik ez du historiak, oraingo honetan dinamika propio sortu eta arraunlariek zia-bogan buelta eman beharrean aurrera egitea erabaki dezaket.

-----* EHUko irakaslea.

“
Ez dut nik inguruan
eszeptizismorik ikusten.
Etorkizunarekin dugu
konpromisoa
”

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 70



UGARTE

**Industria
hornidurak**

Arrasate pasealekua
Tel.: 943 -79 83 96 / 943 - 79 23 00
Faxa: 943 - 793412

astea bi hitzetan

■ **Deba eta Urola bailaretako alkateak kexu**
Deba eta Urola bailaretako 18 alkateek, Eibar-Gasteiz eta Beasain-Durango errepideen lanak datorren urtean hasteko eskatu diete Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiari. EAeko II. Planaren kontra aurkeztutako alegazioan diotenez, Eibar-Gasteiz eta Beasain-Durango errepideei I. Planak eskaintzen zien lehen-tasuna eta atzeraezintasuna albora gelditu dira, Donostialdea eta N1 errepidearen mesedetan.

■ **Bi familia portugaldar bizitokirik gabe**
Zaldispen bizi diren bi familia portugaldarrek bizitokia uzteko zeukaten epea pasa den ostiralean bukatu zen. Arrasateko Udalak, 3. aldiz eman zien Zaldispe uzteko agindua. Honen aurrean, Gipuzkoako SOS Arrazakeriak eta beste 30 inguru elkar-tek familia portugaldar hauek eroldan sartzeko duten esku-bidea defendatu zuten prentsaurre batean.

■ **Kultura etxea Ospitale Zaharrera**
Monterrongo kultura etxea

txikiegi gelditu dela eta, beste nonbait jartzeko beharra agertu zaio udalari: itxura guztien arabera, ospital zaharrean. Gaur egun hortxe daude ludoteka, gaztetxea eta hainbat talderen egoitzak. Dena den, oraindik aurre-proiektua onartzeke dagoenez, ezin ezer ziur jakin.

■ **Herri Batasunaren kale agerraldia.**
Ostiralean herriko HBk ETA-ren suetenaren osteko lehen kale agerraldia burutu zuen. Xabier Zubizarretak euskaldunok dugun erronka berriari buruz hitz egin zuen.

■ **MUren IKASTURTE IREKIERA**
Mondragon Unibertsitateak aurtengo ikasturtearen aurkezpena egin zuen pasaden ostegunean Amaia antzokian. Hezkuntza eta politika esparruetako zenbait pertsona ezagun izan ziren han, tartean Jose Antonio Ardanza lehendakaria,

“

Jantzi genuen lehen futbol taldea Eibar izan zen, 1991n. Gaur egun, ordea, Real Sociedad, Alaves, Osasuna eta Gijongo Sporting ere jazten ditugu. (...) Oraingoz Espainian egiten dugu lan. Kanpora saltzen duguna hutsaren hurrengoa da. Hala ere, prestatzen ari gara kanpora irteteko eta atzerriko feria eta dendetara joaten hasi gara. Gauzak ondo egin barik ezin zaitezke irten besterik barik. Urte bi barru Astore eta Ternua markak kanpoan saltzeko moduan izango gara”.

ESTEBAN URIBESALGO
El Mundo, 1998.IX.21



OPEL ASTRA BERRIA



OPEL

TAKOLO AUTOAK

Irailaren bukaeratik aurrera, 4 ateduna eskuragarri izango duzu

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia
Tel.: 943 79 05 86 ARRASATE

Santutxoko harrobia lurrez beteko da

Astearte goizeko 09:00etatik eguerdiko 12:00ak bitartean, Sara eta Arrasate arteko zirkulazioa etenda egon zen. Tarte horretan Kanpazar enpresaren makina batek bota egin zituen Santutxoko harrobian errepide ondoan geratzen ziren eraikinak. Arrasateko Udalak hondakintzat jo zituen eta bota beharra zegoen.

Calcinor enpresak —Santutxoko harrobiaren jabeak— Arrasateko Kanpazar enpresarekin egiten du lan eta Santutxoko ingurua naturaren zako berreskuratzeko asmatan dabil. Horretarako, lehengo eta behin hor dagoen zuloa lurrez bete nahi du. Ia 100.000 metro kubiko lur beharko dira hori egiteko. Hau da, 12.000 kamioikada lur. Ondoren, zuhaitzu egingo da.

Horretarako, Calcinor eta Kanpazar enpresak herri erakundeekin laguntza lortu nahi dute, batez ere lur hori beste toki batzuetatik ekar dadin. Enpresako arduradunek adierazi duten moduan, euren asmoa da Santutxo lurrez betetzea, baina ez zabortege bihurtzea. Bidearen beste aldean dagoen Altxaurtik harrobia, berriz, zaborrez beteko omen da.

Harrobiko eraikinak birrinduta daude dagoeneko. Orain ikusi egin behar noiz hasten diren betelan eta berreskuratzeko lanak.

Santutxoko harrobia Trojaola familia arrasatearrak ireki zuen 1959an. Ondoren etorri ziren Barinaga enpresa eta Harria Taldea. 1975ean itxi egin zen.



Euskal Herritarrok elkargoak 1.450 sinadura lortu ditu Arrasaten.

Euskal herritarrok Arrasaten aurkeztu da

Euskal Herritarrok plataformak 1.450 sinadura bildu ditu Arrasaten. Herriko kideek joan den asteazkenean eman zuten jakitera datua, Euskal Herritarrok plataformaren aurkezpen ekitaldian, hain zuzen ere.

Aurkezpen ekitaldia Monterron jauregian egin zen, aretoa jendez beteta zegoela. Mahaian Arnaldo Otegi, Herri Batasunako bozeramailea eta Ino Galparsoro, Arrasateko HBko zinegotzia izan ziren. Arnaldo Otegi gustura azaldu zen Euskal Herritarrok plataformaren alde sinadura bilketak izandako erantzuna-

rekin. Berak adierazi zigunez "Sinadurak biltzen hasinenean espero genuen bai Arrasaten, eta orokorrean Gipuzkoan ere, horrelako emaitza. Gainera, urriko hauteskudeen isla baino ez izatea espero dugu". Hain zuzen, urriaren 25ean egingo diren Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak izan zituen hizpide Otegi. Bere esanetan "hauteskunde hauek autonomismoaren azken legegintzaldia ekarriko dute".

HB LEGEZ KANPO JARTZEKO ASMOA

Arnaldoren hitzetan, Eus-

kal Herritarrok plataforma sortzea "Madrilgo gobernua HB legez kanpo jartzeko zuen asmoari aurre egiteko modu bat baino ez da. Jakin badakigu agindu hori idatzia dutela, eta kajoi batean dutela, itxaroten". HBko kidearen arabera, orain arteko esparru politikoak ez dio Euskal Herriari izaten uzten. Hori dela eta, "esparru berri baten beharra somatzen da eta euskara, ekonomia, irakas-kuntza eta presoak defendatu beharrean gaude. Horrekin, elkarlanerako esparruak sortu behar ditugu eta ez lehiarakoak".

Aitor Etxabe atxiloturik

Astearte goizeko 01:00ean, Ertzaintzak Aitor Etxabe gazte mondragoetarra atxilotu zuen. Antza denez, Aitorrek 12 eguneko kartzela zigorra bete beharko du Martuteneko espetxean, epaileak ezarrita-

ko isuna ez ordaintzeagatik.

Asteartean bertan batzarra egin zen Sebero Altuben, Aitorren egoera zein zen azaltzeko. Ondoren kale agerraldia egin zen, atxilotuarekiko atxikimendua adierazteko.






egizabal

Oinetakoak eta poltsak

Betikoak!
Lau belaunaldiren bermea dugu.

Ferrerias, 9 • ARRASATE • 943 79 66 01 Bidekurutzeta, 13 • BERGARA • 943 76 12 28



- Janari prestatuak
- Artisanu produktuak
- Bakailaoa
- Hanburgesak
- Pizak
- Ogitartekoak

TALDEENTZAKO
BAKAILAOA,
OILASKOA
EDO BESTE
EDOZEIN JAKI
PRESTATZEN DA



**Maritxu Kajoiko afarian
eseri eta gozatu.**
**Gu arduratuko gara
denetaz.**
Dei iezaiguzu

Mitarte 10 • Tfnoa: 943 77 06 12 • Fax: 943 77 15 82 • 20550 ARETXABALETAKO • GIPUZKOA

ETAren su eten mugagabeak poza eta itxaropena sortu ditu

JOSE A. ARDANZA

"Egun pozgarria da. Esan liteke gaur hasten garela herriak hainbeste aldiz eskatu duen bakea bideratzen. Aurrerantzean denon beharra izango dugu bakea sendotzeko. Ezer ez da betiko, ezta Espainiako Lege Nagusia ere. Orain 20 urte onartu zen, oso egoera berezian. Hausnartu eta eztabaidatu egin beharko genuke lege nagusi hori egunean jaritzeko".

JOSE MARI LOITI (EAJ)

"Niretzat oso pozgarria da su etenaren berria. Uste dut gauzak aldatuz joango direla eta ea poliki-poliki aurrera egiten dugun".

XABIER ZUBIZARRETA (EH)

"Albiste oso ona da, aspaldi hasita zegoen prozesu baten

Asteazken gauean jakin zenetik, itxaropena eta poza hedatu da Euskal Herriko bazter guztietan. Denek ez dute ETAK aldarrikatu duen su eten mugagabe eta erabatekoa berdin ikusten, baina, oro har, esan liteke erantzun baikorra nagusitu dela. Baita Arrasaten ere.

Kalean jaso ditugun erantzunek poza eta itxaropena erakutsi dute. Arrasateko Udala gobernatzen duten politikoeke ere antzerako erantzunak eman dituzte. Gobernuoak eta oposiziokoak, denak ageri dira baikor.

behin betiko abiapuntua delako. Erronka handia da denontzat, euskaldunontzat eta Espainiako eta Frantziako gobernuak sostengatzen dituztenentzat. Lizarrako itunak onartu duen bezala, PPK eta PSOEk onartu beharko dute hemengo arazoa politikoa dela".

ISABEL GALLASTEGI (EA)

"Oso baikor hartu dut berria. Hau ez da bakea, noski, baina bai lehen urratsa bakebi-

dean. Beti esan dugu elkarriketaren bidetik etorriko dela bakea. PSOeri eta PPri eskatuko nieke ildo horretan sartzea, aurrera egiteko".

JOSEBA UGALDE (EB)

"Tritzi baikorra dugu, lehen aldia delako ETAK baldintzarik eta eperik gabeko su etena aldarrikatu duela. Orain ez dago aitzakiarik. Lehen pausoa izan beharko litzateke euskal presoak Euskal Herria

ekartzea. Denok hartu behar dugu parte honetan".

PACO GARCIA (PSE)

"Arrasateko alderdikideok oso begi onez iksten dugu su etena, nahiz eta oraingo goiz den ezer esateko. Ilusioz beterik gaude. Ea ahalegin hau mami-tzen den eta bakea ekartzen duen Euskal Herrira eta estatu espainiarrera!".

ANTONIO PALACIOS (PP)



"Baikortasunez hartu dugu su etena. Kontuan izan kaltetue-nak bestela geu ginela. Gobernuak gogoz hobatuko dio gaiari, bukaera ona izan dezan. Beharbada orain, hauteskunde garaian gaudelako, ezin izango da zenbait gauza egin, inork elektoralismotzat har ez dezan, baina desiatzen gaude hau konpontzeko".

Solariuma eta Makilajea

**MARITXU
KAJOI**
egunerako
eskaintza
berezia

LORE

LURRINDEGIA



VALMONT

Ayer

BIOTHERM

CLARINS
PARIS

HR
REIZIA RUBINSTEIN

M A S A J E A

masaje terapeutikoa

kirol masajea

osteopatia

kinesiologia

K A B I N A

gorputz tratamendua

aurpegi tratamendua

drenaje linfatikoa

depilazio elektrikoa

O l a r t e, 1 0
A R R A S A T E
☎ 9 4 3 7 9 5 2 5 0

BERGARA

① Orfeoiak 75 urte

Begarako Orfeoiak hainbat ekitaldirekin ospatuko du bere 75. urteurrena. Honela bada, urriaren 24an hasi eta datorren urteko iraila arte sei kontzertu eskainiko ditu Euskal Herriko zenbait herritan. Orfeoiaren historiari buruzko liburua ere kaleratuko da. Baita konpakto bat grabatu ere. 120 lagun biltzen dituen orfeoi hau 1923. urtean sortu zen Ramón Oiarzabal zuzendari zela. Ordutik hona erabili izan dituzten jazkerak, partiturak, argazkiak, etab. ere udaletxeko pleno aretoan izango dira ikusgai.

LHTren kontrako alegazioak

Astelehenean izandako osoko bilkuran, Bergarako Udalak onartu egin zituen Lastertasun Handiko Trenaren aurka aurkeztu ziren alegazioak. Alegazio hauetan, LHTren bidearen azken zatia Angiozartik pasatu beharrean, Epeleko bailaratik zehar pasatzea eskatzen zen. Izan ere, bergarraren ustez, min handia egingo bailioke bailarari, Durango-Bea-



sain errepideak ere Angiozar zeharkatzen baitu.

Joan zen astean ekin zitzaion gripearen kontrako txertoa jartzeari. Txerto hau dohainik banatuko da 65 urtetik gorakoentzat, eta orohar, gaitasun sendaezinak dituztenentzat. Oñatin, gainera, jende nagusiari lana errazteko,

OÑATI ② Gripearen aurkako txertoa

inguruko auzoetaraingo joango dira txerto hau banatzera. Txertoa jaso ahal izateko, anbulatoria deitu beharko da, aldeztu aurretiko txanda lortzeko.

ELGETA ③ Mendizaleen bilera

Asteazkenean herriko mendizaleek bilera egin zuten udaletxean. Euskal Herriko Mendi Federazioak 75 urte betetzen dituela eta, herri batzorde bat eratu zen, urteurrena ospatzeko egin behar diren ekintzetan laguntzeko.

ANTZUOLA ④ Pilotalekuak ehun urte

Pilotalekua egin zela ehungarren urteurrena betetzen dela eta, profesional mailako pilotari jaialdia prestatzen ari dira Antzuolan. Oraingoz seguru da Aitor Elkorok parte hartuko duela urriaren 3an egingo den jaialdian. Oraindik erabakitzeke dago nortzuk jokatuko duten haren ondoan. Pilotazaleek ondo pasatuko al dute frontoi berrituan!

TTUKUN

Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a

Ferrerías, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

“PAL”

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE



Maritxu Kajoi
egunerako

makilatu eta orraztu

3.000 ptatik
aurrera

ZATOZ!

Maalako Arrabala, 21-B
ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

LAN ESKAINTZAK

Arrasateko Udalak aldi baterako lanpostu hauek eskaintzen ditu:

- Emakumeentzako berdintasunerako agentea
- Santamarinako liburutegirako laguntzailea (egun erdiz)

Oinarriak: Udaletxean jaso daitezke.

Eskaerak aurkezteko epea: urriak 6, asteartea.



ARRASATEKO UDALA

Personal Sails ■

San Mikelak baino astebete lehenago, Garagartzako 60 bat auzokide hor zehar atera dira, urtero bezala, mundua ezagutzera.

Oraingoan Burgos aldera jo dute, Frías eta Oña izeneko herrietara hain zuzen ere. Argazkian argi ikusten da primeran ibili zirela.

Karlos Antanak egundoko artea erakutsi ei zuen italianadak abestu eta antzetzten.



GARAGARTZATIK BURGOSERAKO ESPEDIZIOA

BONBAREN OIHARTZUNA

Donostiako bi lagun hauek, Oskar eta Tubal, Pragaraino joan eta hantxe konturatu ziren Bonba Taldiek zernolako oihartzuna duen. Poztu egin ziren, Errealak sekulako partida ikusgarria eskaini zuen eta. Bonba Taldeko partaideen aldetik: "ea animatzen zareten orain bonbazale amorratuak izaten!".



ALDARE BIDEAN ETA LIGATZEN!





MARGO IBILTARIA

Arrasateko Valentin Arana Ezkurraren "Ciudad de Frías" izeneko margolana Bilboko Gran Vía kaleko Larrea Aretoan ikusgai izango da, Burgosen eta Miranda de Ebron izandako erakusketetan egon ostean. Margolan hau Ciudad de Frías izeneko XI Margo Lehiaketan aurkeztu zuen margolariak.



BESAIDE EGUN ZORAGARRIA

Eguzkia lagun, Besaide Egunaren beste edizio bat izan zen igandean. Jende ugari bildu zen hantxe mendian hil direnak oroitzeko. Guztien artean giro polita lortu zuten. Txalapartariak, ohiko meza eta bertsolariak ere izan ziren, betiko moduan giro ezin hobean.

arreglos


Eroski merkataritza zentruan

**Maritxu Kajoi egunerako
soinekoak alokatzen ditugu
6.500 ptatik aurrera**

Osagarriak: poltsak, kapeluak,...

ZATOZ ETA
AUKERATU
ZURE
GUSTUKOENA

Tel.: 943 79 10 43


ARAOTZ Merenderua

**Ingurune zoragarrian
lagun artean
ondo pasatzeko aukera**


Araotz auzoa, 2 • OÑATI
Tel.: 943 78 35 26




ARANTZAZU
OÑATI
ARAOTZ
Merenderua




Rosa Mondragon
Mahai Ingurua



Edu Abasolo
Soinuz blai



Mikel Lizarralde
JolasPlast



Garikoitz Kortazar
Munduari bueltaka

ATBk programazio berri

Orain dela zazpi urte astelehenetik ostiralerara emititzen hasi zen ATB, Arrasateko herri telebista. Orain, berriz, astelehenetik igandera bitarteko emisioa egitea erabaki du. ATBko arduraduna den Jon Aldanondoren esanetan, "apostu bat da. Jendeari geroz eta gehiago eskaini behar diogu, horixe baita jendeak nahi duena. Jakin badakigu bitarteko gutxiarekin gauza asko egin nahi izatea handikerietan aritzea dela, baina, nire ustez, jendeak gogoz hartzen badu, lortuko dugu aurrera egitea. Iaz 17,5 orduko emisioa genuen. Aurten, berriz, 23,5 ordu eskainiko ditugu".

AURPEGI BERRI ASKO

Urritik aurrera programa berriak eta ez hain berriak nahastuko dira emisioan zehar. Aurpegi berririk ere ez da faltako. Horien artean, dagoene-

Udazkenean jantziak aldatzeko garaia izaten da eta Arrasate Telebistak ere, horixe egingo du urritik aurrera. Ezagunak diren programei beste batzuk gehituko zaizkie. Apostu sendoa egin du oraingoan ATBk, emisio orduak eta programazio eskaintza zabalduz. Mondragoetarrentzat hain ezagunak diren Berriak, Mondrasport eta Astebete bezalako saioekin batera, Musiklasik, Soinuz Blai eta Aurrez Aurre ikusteko aukera ere izango da ATBren programazio berrian.

ko *Berriak* albistegia aurkezten hasia den Maider Osa dugu. Urritik aurrera, *Astebete*, albiste erreposoa ere egingo du. 20 urteko mondragoetar hau da etxeko aurkezlerik gazteena.

Beste aurpegi ezagun batekin ere egingo duzue topo ATBko ikusleek. San Joaantan *Izarren Zaparrada* aurkeztu zuen eta orain umeekin arituko da pantaila txikian. Mikel Lizarralde urretxuarra da eta berea izango da herriko gaztetxoena entretenitzeko ardura. Lehiaketak, Euskararen Txokoa, Agenda eta

marrazki biziak edo dokumentalek osatuko dute haurrentzako tarte hau. Neska-mutikoentzako saioa asteartean emango da, hamabostero, arratsaldeko 19:20etan, albistegiaren aurretik.

Astearteak izango du beste aurpegi berririk ere. Mondragoetarrek Arrasate Irratian entzun dute orain arte haren ahotsa. Orain haren aurpegia ikusteko aukera izango dute Arrasate Telebistan. Garikoitz Kortazar izango da *Munduari Buelbaka* saioaren aurkezle berria. Hamabostero, urrutiko herrialde exotiko

batera eramango gaitu, beste kulturak eta ohiturak ezagutzera.


GUZTIENTZAKO SAIOAK

ATBren erronka berri honetan, komunikabideen esparruan urteak daramatzan Alberto Gorritiberea irrati gizonak ere izango du tarte bat. Enpresaz arituko da hilabetero etxe honetan. Herri Irratiko aurkezleak, ostegunetan emango du herriko egoera ekonomikoaren berri.

Mahai Ingurua ere hamabostean behin egingo da, oraingo honetan etxe hau ondo ezagutzen duen kazetari batek zuzenduta: Rosa Mondragonek, alegia. Sasoi batean *Arrasate Presseko* kazetaria izan zen eta eguerdian albiste aurrerapena aurkezten zuen ATBn. Hamabostero eta asteazkenetan, hainbat gonbidatu izango ditu mahaiaren bueltan, gaurkotasuna duten gaien inguruan zuzenean aritzeko.




Itxaro Zubillaga
Mondrasport



Iban Gonzalez
Soinuz blai



Mainer Osa
Berriak



Ignacio Olaizola
Musiklasik

erriari ekingo dio urrian

98-99 denboraldiko programazioaren barruan badira lehen ere aritu izan diren beste hainbat lagun. Horietako bat Karmele Zuazubiskar dugu. Oraingoan, ordea, elkarreak alde batera utziko ditu eta herrian gauza asko esateko dutenekin berbetan arituko da, *Aurrez Aurre* izeneko elkarrietzeta saioan. Programa hau ere hamabostero egingo da, asteazkenetan. Gainera, lehenengo gonbidatua nor izango duen ere jakin izan dugu: mondragoetarrentzat hain eza-guna den Juanito Arzamendi. Hasteko behintzat, kontu ugari dituen pertsona, dudarik gabe.

MUSIKA GUZTIENTZAT

Udazkeneko doinuak eta beste urtarotakoak ere entzun ahal izango dira urritik aurrera. Musikaren inguruko bi saio eskainiko dira. *Musiklasik* Marta Izagirrek eta Inaxio Olaizolak zuzenduko duten

musika saioan doinu klasikoak izango dira nagusi. Arrasate Musikaleko zuzendariak eta Goikobalu abesbatzako kideak jakitunak dira musika estilo honetan eta doinu hauekiko zaletasuna areagotu nahi dute mondragoetarren artean.

Gazteagoek ere izango dute euren musikaren txokoa. *Soinuz Blai* saioak, bestelako doinu eta kantak eskainiko ditu. Saio hau Canal Gasteizekin elkarlanean egingo da. Lehenengo aldia da

ATB beste telebista batekin elkarlanean aritzen dena. Jon Aldanondok dioenez, "Gasteizkoak desiatzen daude euskaraz zerbait emateko eta Edu Abasolok eta Iban Gontzalezek aukera horixe eskainiko diete. Gasteizkoek bideo klipak utziko dizkigute guk saioan erabil ditzagun. Trukean *Soinuz Blai* han emitituko dute". Esan gabe doa *Soinuz Blai* orain arte Arrasate Irratian aritu diren eta gainera ATBko teknikariak diren Edu

eta Ibanek zuzenduko dutela.

KLASIKOAK ERE BAI

Baina berritasun hauen guztien artean, ezin ahaztu *Mondrasport* eta *Kaleidoskopioa*. Itxaro Zubillagak herriko kiro- len berri ematen segituko du astelehenero. Baina oraingoan zenbait berritasun ere eskainiko dizkigula azaldu dugu. Hala ere, sorpresa izango denez, horrela utziko dugu. Bestalde, eta kultura programei dagokienez, iaz ematen hasi zen *Kaleidoskopioa*. saioari ere helduko diote berriz ere Aitziber Langarainek eta Unai Iparragirrek, hamabostean behin, ostegunero, 21:30etatik aurrera.

Hauek izango dira ATBren aurpegi berriak. Ongi etorri guztiei eta zorte on zuon saioetan!

"Jendeari geroz eta gehiago eskaini behar diogu, horixe baita jendeak nahi duena"

ARRASATE TELEBISTA

Marijo Deogracias

...esan zeuk ere
BAJ EUSKARARI!!

ARRASATEKO ERDU

AEK EUSKALTEGIA
EUSKARA IKASTAROAK

Maila guztiak

EGA eta ALFABETATZE

Matrikula epea: Urriak 2

INFORMAZIO ETA MATRIKULA

ERDU AEK EUSKALTEGIA

**Euskarak AEK behar du,
AEK-k zu behar zaitu**

Garibai Kalea, 14, 3.

Tel.: 943 77 03 69

UDALAREN LAGUNTZAZ

BEKA SISTEMA

izena eman

euskaltegi eta barnetegietan!


ækⁿ

Ttukun hamabi urte fotokopiak egiten

Lanean hasi aurretik, Aitor Astaburuagak Ofizialia ikasi zuen Eskola Politeknikoan (oraindik ere damu da Maestria ikasi ez izana) eta Mondran eta Eskoriatzan jokatu zuen futbolean.

Laster aspertu zen Gasteizko joan-etorriak egiten, BH bizikleta fabrian baitzebilien, eta bere kontura jartzea erabaki zuen. Horretarako Jabi anaia zuen gogokide.

Bazterrak ondo miaztu ondoren, fotokopia zerbitzua jartzea erabaki zuten. Horretarako birraitonaren bizartegia erabiliko zuten, Ferrerias kalean, nahiz eta sarrera Zurgin Kantoin ipini. Hainbat kreditu eskatu, bizartegiko sukaldea txukundu eta makinak erosi zituzten. Denda irekitzeko bezperan, Fagorretik deitu zioten. Bera ez zen joan, baina bai anaia. Honek han segitzen du, baina lanetik irten eta laguntzera joaten da.



Aitor Astaburuaga.

Gaur egun fotokopia zerbitzua, liburu jostea, plastifikatzea, fax zerbitzua eta bulegorako materiala eskaintzen dute.

Adin eta era guztietako jendea joaten zaie, batez ere

ikasleak. Apirilean hasi eta San Joanak bitartean, azterketa garaian, lan ugari izaten dute: apunteak, liburuak, etab. fotokopiatuz.

Koloreko fotokopiak ere egiten dituzte. Jendeak batik

bat argazkiak kopiatzen ditu koloretan.

MAKINAK NABARMEN HOBETU DIRA

Fotokopiagailuak erosi egiten dituzte. Normalean hiruzpatalau urte egiten dute lanean jo eta ke. Beste urte bete, bestelako lanak egiten eta ondoren, zaborretara. Hamabi urte hauetan izugarri aldatu dira makina hauek, Aitorren esanetan: "askoz ere lasterragoak dira eta kalitate hobea eskaintzen dute".

Hamabi urte pasatu dira eta pozik dago Aitor: "Jende asko pasatzen da hemendik. Lagun asko egiten ditut. Konforme bizi naiz". Ez da damutzen bere negozioa jarri izanaz: "ausartu egin behar zara, beldur barik. Txarto irteteko arriskua egon liteke, baina berdin da. Aurrera egin behar da. Autonomia naiz, egunean bizitzen, baina pozik".

Ikas ezazu dantza egiten Nayrelisekin ATERPEN



Dantza afroamerikarrak

Son - Salsa - Cha,cha,cha - Kubako erritmoa -
- Runba - Rueda kasino-Koreografiak -
- Kabaret teknikak -

Eman ezazu ikastarorako izena Aterpe Kafetegian (Amaia antzokiaren ondoan)
Tel.: 943 77 03 87

Lehenengo 3 irabazleek ikastaroko lehenengo hilabetea dohain izango dute!

Zein alde dago son eta salsaren artean?

Izen-abizenak:
.....
Helbidea:
Telefonoa:
Erantzuna:

Helarazi ezazu kupoia
Arrasate Pressera

810



Nikon argazki-kamera.

1.870



14"ko Grundig telebista.

680



Donostiako Termas La Perla bainuetxea.

370



24 piezako mahai-tresneria.

595



Hotel-bonua.

740



Fagor markako 2 lapiko azkar.

Super 55 Libreta

ESKATU 98ko SARIEN
KATALOGOA ZURE BULEGOAN

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Zure
konfiantzari
erantzuten
diogu

Super 55 libretak, interesak ematez gain, opari ziurrak ere eskaintzen dizkizu, inolako zozketarik eta eperako ezarpenik gabe: bidaiak, opariak, hoteleko egonaldiak...

Urriaren 1ean katalogo honetan aurkeztzen dizugun sari promozio berria hasiko da.

Hilero-hilero zure Super 55 libretak puntuak pilatuko ditu eta, martxoan eta urrian, zuk aukeratzen duzun sariarekin trukatu ahal izango dituzu.

875



Façor zurgailua.

160



Urrezko belarritakoak.

445



5 piezako kafe-jokoa.

1.225



Portzelanazko baxera eta kafe-jokoa. 63 pieza.

520



Sony irrati-kaseta.

938



Nekazal turismoa Nafarroan.



ESTETIKA-ZENTRUA
EMAKUME-GIMNASIOA

Zure konfiantzari erantzunez

PARDO ESTETIKA ZENTRUAK urtetan zure zerbitzura egon ondoren eta beregan jarritako konfiantza eskertzeko, urriaren hasieratik aurrera handitu egingo du bere zerbitzuen eskaintza **LIRAIN** izenarekin, **EMAKUME-GIMNASIOA** eta **ASTEBURUETARAKO PROGRAMA LASAIGARRIAK** gehituz.

ESTETIKA-ZENTRUA

- Depilazioa argizari hotzez eta beroz.
- Depilazio elektrikoa.
- Gorputz eta aurpegi tratamenduak.
- Solariuma dutzarekin (zutikakoa eta etzandakoa).
- Makilajea (iraunkorra, egun berezietarako...).
- Tratamendu pertsonalizatuak.
- Manikura eta pedikura.
- Liposukzioen kudeaketa eta kontrola.
- Lokatzak.

EMAKUME-GIMNASIOA

- Aerobica (ibilitakoentzat eta hasberrientzat).
- Neskantilentzako aerobica.
- Mantenimendu-gimnasia.
- Yoga.
- Bizkarra zuzentzeko gimnasia.
- Erditu aurreko eta ondoko gimnasia.
- Aretoko dantzak (salsa, merengea...).
- Zerbitzu medikoa.
- Masajeak.
- Lurrun-bainuak.

PROGRAMA LASAIGARRIAK

(LARUNBATAK ETA IGANDEAK)

- Lurrun-bainuak.
- Dutxa eskoziarra.
- Hidromasaje-bainuontzia.
- Masaje lasaigarria.
- Presoterapia.
- Lokatzak.



Taldeak osatzen ari gara. Argibide gehiagorako eta izena emateko hotsegin 943 79 52 17 telefonora.

- 300 m²z gozatzeko aukera.
- 14 laguneko talderik profesionalena.
- Astelehenetik igandera arte zure zerbitzura.

Bixente Ferrer, 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 52 17
(Sarrera: Mondragon Hotelaren ondoan)

Arrasateko nesken futbol taldea

Esti Loitiren neskak Atxabalpen jokatuko dute denboraldiko bigarren norgehiagoka. Larunbatean, Fadrako Bizkerre taldearen bisita izango dute, 16:30etan. Hona hemen 98-99ko talde berria.



Sokoa Azkarate
(19 urte)
Atezaina



Amaia Gartzia
(22 urte)
Atzelaria



Olatz Bideluze
(18 urte)
Atzelaria



Arantzazu Fresno
(17 urte)
Atzelaria



Leizuri Aranbarri
(19 urte)
Atzelaria



Rebeka Ubera
(26 urte)
Atzelaria



Larraitz Madariaga
(20 urte)
Atzelaria



Esti Ramos
(19 urte)
Erdilaria



Josune Garitano
(17 urte)
Erdilaria



Ainhoa Gallastegi
(20 urte)
Erdilaria



Izaskun Heriz
(26 urte)
Erdilaria



Josune Elkoro
(19 urte)
Atzelaria



Agurtzane Lete
(24 urte)
Erdilaria



Izaskun Aranbarri
(16 urte)
Erdilaria



Giomar Fernandez
(22 urte)
Erdilaria



Bakartxo Luengo
(26 urte)
Erdilaria



Amaia Luengo
(25 urte)
Aurrelaria



Araitx Etxabe
(14 urte)
Aurrelaria



Alaitz Murua
(14 urte)
Aurrelaria

Larunbatean egingo dute futbol taldeko neskek denboraldiko aurkezpen ofiziala. Taldean aurpegi berri asko dago, taldekide askok futbola utzi dute eta. Horien artean, Iratxe, Jone, Saioa, Susana, Idurre eta Nagore ditugu. Taldeak atzain bakarra dauka: Sokoa Azkarate. Larunbatean izango denez, etxean jokatu dute lehen norgehiagoka, futbolari ohiei omenalditxo bat egiteko aprobetxatuko dute "Titu"ren neskek.



Juli Martinez
(18 urte)
Aurrelaria



Esti Loiti
Entrenatzailea



Iratxe Vazquez
Laguntzailea

Junior mailako errugbi taldeko kapitaina

TXOMIN GARCIA

“Gogorra da, baina ez du aparteko abaleginik eskatzen”

— **Zenbat urte daramazu errugbian jokatzen?**

— Juniorretan lehen urtea da, nahiz eta errugbian hiru denboraldi egin ditudan. Gazte mailatik junior mailara pasatu nintzen.

— **Alde handia dago maila batetik bestera?**

— Ez, jende bera gaude taldean. Egia esateko, oso antzekoak dira bi mailak.

— **Nola ikusten duzu denboraldia?**

— Nahiko txarto. Oso talde onak daude ligan eta gu berriak gara. Baina tira, zerbait egingo dugu.

— **Nolatan kapitaina?**

— Entrenatzaileak hautatu ninduen, baina ez dakit zergatik. Denak ezagutzen dugu elkar, pare bat izan ezik, baina ni hautatu ninduen.

— **Zer duzu gustukoaren errugbian?**

— Jokatzen hasi nintzen zerbait egiteagatik eta gustatu egin zitzaidan.

— **Gogorra da?**

— Beno bai, gogorra da, baina ez du aparteko eginahalik eskatzen. Futbolearen eta errugbian antzera ari garela uste dut.

— **Arriskutsuagoa izango da, ezta?**


— Bai, apur bat bai. Hala ere, oraindik inoiz ez zait ezer pasatu.

— **Beldurrik izaten duzu?**

— Beno, ... agian aurkariak ikusita...

— **Ikusten duzu errugbi-rik telebistan?**

— Ematen dutenean, baina ez da sarri izaten.



TXIRRINDULARITZA Jon del Rio garaile



Born Jay taldeko Jon del Rio txirrindulariak irabazi zuen Bergarako San Martin txirrindulari saria.

Jon del Rio, esprintean eskuratu zuen lehen tokia Ibergaraioko helmugan. Jon Unamuno, bere taldekidea, lehen herritarren saria eskuratu zuen eta taldea, Born Jay izan zen lehena. Asteburu honetan Laukizera abiatuko dira

Gazte mailako Fagor taldeko txirrindulariei dagokienez, Beasainen izan ziren larunbatean. Lehen saria lortzen saiatu ziren arren, azkenean 15. izan zen Llodio eta 18. Beitia. Garaipena, Añares taldeko Sebastian Elorza eskuratu zuen. Asteburu honetan, Urrietara joango dira.

ESKUBALOIA Denboraldia hasi da



Arrasate Eskubaloia Taldeak joan den larunbatean ekin zion denboraldiari. Gasteizko

El Pilar taldearen aurka aritu zen lehenengo norgehiagokan. Emaizta ez zen oso ona izan: 25 eta 10 galdu zuten mondragoetarrek. Hala ere, kontuan izan behar da Bernardo Balerdik zuzentzen duen taldeak jokalaria gazte asko dituela eta aurre-denboraldian ez dutela presaketako partidarik jokatu. Nazional bigarren mailan ari da jokatzen Arrasateko eskubaloia taldea. Asteburu honetan Bilboko Eskolapios taldearen aurka neurtuko da, Iturripen, arratsaldeko 18:00etan.

FUTBOLA Azken aurrekoak




Preferente mailako

Mondra taldeak 1 eta 4 galdu zuen Aloña Mendiren aurka. Derbiak aukerapolita eskaintzen zuen puntuak etxean gelditu zitezela, baina Juanina Garairen mutilak ez dira entrenatzailearen joko sistema berrira egokitu, oraindik. Aste honetan beste aukera bat izango dute orain arteko emaitza txarrak hobetzen joateko. Aurrez aurre, Zumarragako Urola taldea izango dute. Norgehiagoka larunbatean jokatuko da, arratsaldeko 17:00etan.

Igandean, bestalde, beste derbi bat jokatuko da Atxabalpen. Oraingoan, gazte mailako taldeari tokatu zaio Aloña Mendiren aurka jokatzea. Ohorezko ligan ari diren gazteek igandean arratsaldeko 16:30etan ekingo diote partidari.

SASKIBALOIA Denboraldia Bilbon hasiko da



Arrasate Saskibaloia

Taldeak Bilbon jokatuko du 98-99 aurtengo denboraldiko lehenengo partida. Denboraldi honetan, 2. autonomi mailan jokatuko dute arrasatearrek. Aurre-denboraldiko hainbat norgehiagoka jokatu dituzte astean zehar. Larunbatean, esaterako, Bergararen aurka 83-74 irabazi zuten. Asteazkenean, berriz, Aramaioko taldearen aurka aritu ziren Iturripen. Larunbatean, Euskadi Siglo XXI taldearen kontra jokatuko dute, arratsaldeko 18:00etatik aurrera.

Junior mailakoek ere asteburu honetan ekingo diote denboraldiari. Hauek ere kanpoan izango dute lehen partida, Urretxun.

ROMAN BALANZATEGI (MEDIKUA)

“Beti arduratu naiz neure jakinduraz”

Arrasaten jaioa orain 68 urte, Roman Balanzategi Mendikute taberna giroan hasi zen gurasoenean. Ikasketak Arrasaten egin zituen. Ondoren, Gasteizen lau urte egin zituen, Zaragozan sei eta, bukatzeko, Madrilgo Unibertsitatean eta Basurton beste hiru urterekin borobildu zituen ikasketak. Ez da inoiz geldirik egon: Roneon, dispentsarioan, Zerrajeran eta Lagun Aron. Azken honetan lehendakari izan da hamar urtez. Egun erretiratuta dago, baina hala ere, lan eta lan dihardu hainbat arlotan.

— Zenbat urterekin etorri zinen Arrasatera mediku eginda?

— Soldaduzka egin ostean, 26-27 urterekin etorri nintzen Arrasatera. Peditra nintzen. Orduan zazpi mediku bakarrik ginen Mondragoen eta lan ugari zegoen. Nik askotan bi plaza osorik betetzen nituen, 5.200 kartila inguru. Donostiara eskatu izan nuen laguntza, baina badakizu, orduan ez zegoen sendagile askorik.

— Mediku larregirik ez egoteaz gain, garai haietan beste zailtasun batzuk ere izango zenituzten...

— Bada, adibidez, 1962an Lagun Arotik kontsultorio bat ireki genuen orain Euskadiko Kutxa dagoen tokiaren lehenengo solairuan. Izan ere, orduan espzialista beharra zekana Donostiara, Gasteizera

edo Bilbora joan beharra zuen eta guk egin genuena izan zen espzialistak hona ekarri: umeentzat, eztarrikoak, hezurretakoak... baina urtebete baino lehenago, lekurik barik gelditu ginen. Orduan eskari handia zegoen, izan ere Mondragoan 400 bat ume pasatxo jaiotzen ziren eta andra asko eta asko ezin ziren ospitalera joan. Ama etxe bat behar zen eta nik egiteko eskatu zidaten. Halaxe, ama etxea egin eta, horrekin batera, operazio sala bat ipini genuen. Horrek kirurgilaria zekarren eta poliki-poliki, handi egin zen. Azkenean ospitale hau Gizarte Segurantzara pasatu zen.

— Nola gogoratzen dituzu dispentsarioan igarotako urteak?

— Nire bizimodutik zerbait nabarmentzekotan, dispentsarioan igarotako urteak nabarmenduko nituzke.

Niretzat oso garrantzitsua



“Dispentsarioa elkarte antzeko bat izan zen. Herriko jende askok egin genuen lan hantxe. Horrek berak nolabaiteko hezkuntza ere ekarri zuen”

ria jendeari laguntzeko erabiltzen

izan zen. Gauza bi aipatuko nituzke batez ere: alde batetik, orduan gerra ostea zen 1945-47. urte inguruan. Gosea zegoen eta horren ondorioz, biriketako gaixotasuna, tuberkulosia, oso zabalduta zegoen. Tuberkulosiari aurre egiteko egin zen lana oso garrantzitsua izan zen. Bestetik, dispentsarioa elkarte antzeko bat izan zen. Herriko jende askok egin genuen lan hantxe. Horrek berak nolabaiteko hezkuntza ere ekarri zuen.

— Zergatik itxi zen dispentsarioa?

— Bada, 74 urtearen inguru-

ruan itxi zen. Alde batetik, tuberkulosi izurritea bukatu egin zelako, eta bestetik, lehen aipatutako zentrua hasia zenez, dispentsarioak ez zuen aurrerapiderik eta itxi egin zen.

— Zerk eraman zintuen Lagun Arora?

— Lagun Aron nire egarria, nire zaletasun nagusia landu ahal izan nuen: lanarekin zerikusirik duten osasun arazoak, istripuak, etab.

— Jauzi handia dago dispentsariotik Lagun Aroko lehendakaritzara...

— Bada bai, baina hor

pasatu zena izan zen norbait lehendakari izateko premia sortu zela eta gizon asko ez direla egoten horretarako eta neuri eskatu zidatenez, bada onartu egin nuen. 1984tik erretiratu arte hantxe ibili naiz.

Dena den, uste dut politika edo errepresentazio maila hori oso nekeza dela.

— Nola ikusten dira gauzak erretirotik?

— Nik uste dut erretiroa hartzen denean, lanean segitu nahi izanez gero, hobe beste arlo batean aritzea, zeren eta ordurarteko lanean segituz gero, kazkartu egiten gara eta

azkenean oztopo bihurtu.

Nire kasuan, oraingoan, FREMA Peko lehendakari izaten segituko dut, baina asko jota 70 urte bete arte. Bestela, jende nagusiarentzat antolatutako hainbat hitzaldi ematen nabil, ICTEK eraturta (Hirugarren Adineko Institutu Komunitarioa). Bakardadea, pentsioak, osasun maila, seniparteak edo herentziak, nola bizi eta antzeko gaiak jorratzen ditugu. Hau ez zen nik egitea pentsatuta zuena, baina orain poztu egin naiz, zeren eta jende nagusiak hain gutxi daki horrelako gauzei buruz...

Loramendi kirolak

%50

Zapatilak

Futboleko botak

Haurren arropak


AZKEN EGUNAK

1.000

- Kirol jantziak
- Prakak
- Sudaderak
- Nikiak

2.000

Kukuluma aldizkaria, haur eta gazte literaturaz informatu guran



Kukuluma aldizkariaren aleak.

Kukuluma aldizkaria Eskoriatzan dagoen Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak argitaratzen du. Fakultatean bertan, haur literaturan oinarritutako departamentu bat dute, eta euskaraz argitaratzen den guztia irakurtzen dute. Gidak ateratzeaz gain, mintegiak ere badituzte, ikastaroak ere antolatzen dituzte... Izan ere, oso garrantzitsutzat jotzen dute beraiek beren fakultatean duten informazioa maisu eta maistrei helaraztea.

Haur liburutegia eta haur liburu mintegiaren informazio tresna izan nahi duen aldizkari hau, urtean hiru aldiz kaleratzen da. Zerbitzu honetan haur eta gazte literaturari buruzko euskara nahiz gaztelaniazko liburu, kontsulta liburu, aldizkari eta dokumentuei buruzko informazioa aurki daiteke.

MATERIALA JASOTZEA ERE POSIBLE

Kontsultak egiteaz gain, ordea, bertan eskaintzen den materiala jasotzea ere posible da. Pello Añorgarekin batera aldizkariaren zuzendaritza lanetan aritzen den Nerea Alzolak bi aukera jartzen dizkio nahi duenari hori egin dezan: "bide bat zentrua ikustera etorri eta kontsultak egitea litzateke. Horretaz gain, aldizkariak berak ere badu eskaera orria fotokopia bidez nahi diren artikulak eta dokumentuak eskuratu ahal izateko".

EAEko ikastetxe guztiatarabazabaltzen dute *Kukuluma*. Baita idazle, liburu elkarte, bibliotekari elkarte eta antzerako Hezkuntza erakundeetara ere. Horretaz gain, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko hainbat ikastetxetara ere bidaltzen dituzte zenbait ale. Guztira

1.500 ale inguru kaleratzen dituzte.

KUKULUMA KUKUMIRAREN OINORDEKO

1998ko urtarilean plazaratu zuten *Kukulumaren* lehen alea. Dena den, aurretik *Kukumira* izeneko beste aldizkari bat ateratzen zuten, hau ere haur eta gazte literaturarekin lotua. Eusko Jaur-laritzako Kultura Sailak eskatu zien berau argitaratzea duela bost urte. Orain bi urte urtebeteko etena izan zuten, Kultura Sailak dagoeneko aldizkariarekin jarraitzea ez zitzaizela interesatzen esan zienean.

Orain, ordea, Eusko Jaur-laritzako Hezkuntza Sailak *Kukuluma* argitaratzeko diru laguntza eman die. Halere, Nereak adierazi digun bezala "nahiz eta izen ezberdina izan, *Kukuluma* *Kukumiraren*

jarraipena da".

Kukumirarekin 13 ale karrikaratu zituzten. Haur literaturan esanguratsuak diren mundu osoko 12 idazle izan zituzten aztergai nagusi. *Kukulumarekin* dagoeneko bi atara dituzte, eta hirugarrena ateratzear dago. Aldizkari honetan, ordea, Euskal Herriko autoreak jorratuko dituzte batik bat; idazleak ezezik, baita ilustratzaile eta itzultzaileak ere.

Baina, aldizkari honetaz gain, liburu gomendagarrienen gidak ere plazaratzen dituzte. Hori egin ahal izateko, urtean zehar argitaratu diren liburuak irakurtzeaz arduratzen den talde bat dago, eta beraiek eramaten dute aurrera ekimen hau.

Haur eta gazte literatura gogoko duenak, beraz, badu non jantzi. *Kukuluman*, alegia

TXOS AZURMENDI, DISEINATZAILE GRAFIKOA

Letratipo berriak sortzen

Txos Azurmendi Arrasate Pressko maketazalea da. Kazetaritza ikasi zuen Leioan; maketazio eta ordenagailu bidezko diseinu grafiko eta multimedia arloko ikastaroez osatu ditu gerora bere ikasketak. Duela gutxi, bi letratipo mota asmatu ditu: Zorrotz eta Zatika.

—Zer letratipo asmatu dituzu?

—Hasieran nire asmoa zen Interneten bidez jaso daitezkeen hainbat letra tipori “ñ” hizkia jartzea. Baina, oporretan astia nuenez, letratipo osoa lantzen hasi nintzen. Horrela sortu dira Zorrotz eta Zatika letratipoak.

—Zer programa erabili duzu letratipo horiek asmatzeko?

—Denetik piska bat. Freehand, Photoshop eta Fontographer... Programa batean urrats batzuk egiten dituzu, beste batean apur bat moldatu. Oso prozesu geldoa da.

—Zenbat denbora igaro duzu letratipo horiek asmatzen?

—Denbora librea erabili dut. Hiruzpalau egun gutxi gorabehera.

—Ez zaizu iruditzen letratipo asko oso antzerakoak direla?


—Gaur egun aukera izugarria dago tipografian. Baina hemen aldizkarietan erabiltzen ditugunak nahiko estandarrak dira. Publizitate agentzietan eta egunkarietan, ordea, aukera askoz ere zabalagoa da, orain izugarri garatzen ari baita mundu hori.

—Letratipo gehiago asmatzeko asmorik bai?

—Bai. Orain gainera ezagutzen dut lan prozesua eta azkarrago asmatuko ditut.

—Nolakoa da lan prozesua?

—Hasiera batean beste norbaitek



asmatutako letratipoak hartzen ditut, eta gero hizki bakoitzari bere tratamendua ematen diot programa fotografikoen bidez. Gero denak berriro batu egin behar dira, letratipo edo familia oso bat sortu arte. Letratipo batek agian 250 karaktere izan ditzake.

—Letratipo horiek non erabiliko dituzu?

—Hasiera batean Arrasate Pressen erabiliko ditut.

—Zerk bultzatu zaitu letra horiek asmatzera?

—Arlo berriak jorratzeko nahiak eta jakinminak.

—Zer iritzi duzu euskal letratipoari buruz?

—Polita da, eta hemen asko ikusten den letra mota da. Bezeroek iragarkietan berau erabiltzea eskatzen dute askotan.

—Zein da gehien gustatzen zaizun letratipoa?

—Zaila da hori esatea, asko daude eta. Baina orain sortzen ari diren batzuk izugarri gustatzen zaizkit.

aste gazte

■ DIRULAGUNTZAK

• 1999an Alemaniako uni-
bertsitateetan udako ikastaro-
ak egiteko diru laguntzak, ikas-
le eta katedradunentzat. Epea:
abenduak 4.

• Alemaniako Goethe Ins-
titutuan aleman ikastaroak egi-
teko aukera, ikasketen azken
edo azkenaurreko kurtsoa egi-
ten ari diren ikasleentzat, edo
unibertsitateetan lanean dihar-
duten tituludunentzat. Epea:
abenduak 11.

■ LANA

• Gipuzkoako Hezkuntza
Ordezkaritzan, ordezkapenak
egiteko zerrenda irekialdia.
Irakaskuntza ertainean, fran-
tseza, informatika, automo-
zioko praktikak, teknologia
elektrikoa..., eta ingelesa,
pedagogia terapeutikoa, musi-
ka, entzumena eta mintzame-
na espezialitateetan maisu-
maistrak. Zerrenden irekiera,
irailaren 21etik aurrera.

• Etxarri Aranatzeko Uda-
lak, liburutegiko arduraduna
behar du. Epea: urriak 7.

• Burlatarako, ludotekari
bat eta familia langile bat behar
dira. Epea: urriak 11.

• Lesakako Andra Mari
Egoitzarako zuzendaria behar
da. Epea: urriak 14.

• Berako Udalak, admi-
nistrari laguntzaile bat behar
du. Epea: urriak 19.

• Bizkaiko Diputazioak,
suhiltzaile gidariak behar ditu.
Epea: EAOn argitaratzeko zain.

■ LEHIAKETAK

• Gernika-Lumoko argaz-
ki lehiaketa, gai librean edo
Urdaibairi buruzko argazkiak,
zuri-beltzean edo koloretan.
Epea: urriak 8.

Berri gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

“Freehand, Photoshop eta Fontographer
programak erabili ditut sortzeko prozesuan”

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Etxebizitza salgai Etxezpia kalean (Malvinas). Sukaldea, trastetegia, egongela, hiru logela, bi komun eta hiru terraza dauzka. Tel.: 943 79 92 15. Deitu 22:00etatik 23:00etara.

3. Errentan emateko

• Etxebizitza alokatzen diet ikasleei Donostiako Antigua auzoan. Tel.: 943 45 17 29.

• Etxebizitza bat alokatuko nieke ikasleei. Arrasateko alde zaharrean. Tel.: 943 79 90 84.

• Etxebizitza alokagai ikasleentzat Eskola Politeknikotik gertu. Tel.: 943 79 77 85.

• Etxebizitza alokagai Aramaion. Berogailua dauka eta jantzia dago. Tel.: 943 79 60 88.

4. Errentan hartzeko

• Lau lagunentzako etxebizitza alokatu nahi dugu Arrasaten. Tel.: 943 64 49 41/946 88 08 48.

• Etxea alokatu nahi dugu Arrasaten edo inguruetan. Nahiago dugu berogailua badauka. Tel.: 944 61 24 29/94461 96 93.

• Etxebizitza alokatuko nuke. Gehenez 60.000 pta ordainduko nituzke (berogailua beharrezkoa). Tel.: 943 71 51 67. (20:00etatik aurrera, Marta).

• Etxebizitza alokatuko nuke Arrasate, Aretxabaletan edo Eskoriatzan. Nahiago Arrasaten. Tel.: 943 79 39 78 (M^a Luz).

• Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten edo inguruan. Tel.: 910 36 06 29. Deitu gauzez.

• Etxebizitza alokatuko genuke, Arrasaten. Tel.: 943 45 88 97.

5. Etxe konpartituak

• Mutil bat behar da etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 89 73. Arratsaldez.

• Bilbon etxea osatzeko neska bat edo mutil bat behar da. Tel.: 943 79 69 24. Gauzez deitu.

• Etxebizitza behar dut, beste batzuekin bizi ahal izateko. Tel.: 944 12 54 95. Deitu 15:00etatik aurrera.

• Etxebizitza osatzeko lagun baten bila ari gara. Etxea Altamiran dago.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 77 05 65

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

Handia eta merkea da. Tel.: 943 77 13 20

• Etxebizitza behar dut, beste batzuekin bizitzeko. Tel.: 944 46 29 17.

• Logela bat behar dut ikaslez osatutako etxebizitzan. Tel.: 943 72 48 76 (Rakel).

• Eskoriatzan etxebizitza osatzeko edo alokatzeko prest nago. Tel.: 943 81 67 99 (Victoria).

• Bilboko San Ignacio kalean etxebizitza osatzeko bi ikasle behar dira. Oso merkea da. Tel.: 943 77 13 77/943 44 50 43.

• Pertsona bat behar dugu Bilbon, udaletxe inguruan etxebizitza bat osatzeko. Zuriñe eta Ihintza. Tel.: 943 45 34 74/943 21 56 54.

• Logela bat behar dut beste batzuekin osatzeko etxe batean. Ahal bada, Musakolan. Tel.: 909 44 41 54.

• Bi neska behar dira etxebizitza osatzeko Donostian. Tel.: 943 79 00 13.

• Neska bat behar da Donostiako Gros auzoan etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 89 62.

• Leioan lagun bat behar da etxea osatzeko. Tel.: 943 79 30 61.

• Neska bat behar da Donostian etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 83 22 (Maite).

• Emakumea behar da Errebuelta kalean etxea osatzeko. Euskalduna bada, hobe. Tel.: 943 79 15 96.

• Aramaion pertsona bat behar da etxea osatzeko. Mezua uzteko: 907 23 43 54.

• Laguna behar dut Donostian (Amaran) etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 71 50 87/943 71 41 49.

• Lagun bat behar da etxebizitza osatzeko, Bilbon. Tel.: 943 79 56 86.

• Ikasle batek gela bat hartuko luke etxe osatu batean. Euskaldunekin hobe. Tel.: 943 55 07 42 (Kepa).

• Pertsona bat behar da Leioako Unibertsitateko gertu dagoen etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 51 68 (Ainhoa)/ 943 79 28 11 (Saioa). 14.000 pta hileko.

GARAJEAK

7. Saldu

• Garajea salgai Roneoko etxeetan, 1. solairuan. Tel.: 943 79 18 70.

• Garajea salgai Jose Luis Iñarra Pasealekuan. 700.000 pta. Tel.: 94379 27 68. Gauzez deitu.

• Garaje handia prezio txikian alokagai Udala plazan, Usetxe inguruan. Tel.: 943 79 66 638.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100m²ko bi solairuko tokia salgai. Tel.: 943 79 07 24.

• Tokia salgai Erguin kalean. Edozein negozio motatarako prestaturago. Tel.: 909 40 93 66

15. Errentan hartzeko

• Gazte talde batek toki bat alokatu nahiko luke. Erdialdean eta merkea. Tel.: 943 79 55 48 (Mikel) 20:00etatik aurrera.

LANA

17. Eskaintzak

• Neska arduratsua umeak zaintzeko prest. Interesatuek deitu 943 71 53 74 telefonora. Goizez, eguerdiz edo 20:00etatik aurrera.

• Emakume gaztea bulegoak, eskolak, etab... garbitzeko prest. Arratsaldeko orduetan. Tel.: 943 79 67 30. Deitu 20:30etatik aurrera.

• Esperientziadun emakumea prest orduka garbiketarako egiteko (atariak, dendak, etxeak...). Tel.: 943 79 60 18 (M^a Karmen).

• Etxeak garbituko nituzke, edo pertsona nagusiak zaindu. Tel.: 943 79 11 46.

18. Eskaerak

• Taberna baten sukaldean lan egiteko neska bat behar da. Tel.: 943 79 00 34.

• Esperientzia duen emakumea behar da senar-emazte helduak zaintzeko. Hobe euskaraz baleki. Tel.: 943 76 51 67 (20:00etatik aurrera).

• Autoa duen pertsona bat behar da, umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 77 04 61.

• Pertsona bat behar dut, bi estetik behin, goizez umeekin egoteko, Aretxabaletan. Tel.: 943 79 79 29.

• Jate txerako zerbitzaria behar da.

Neska, euskalduna eta esperientziaduna. Tel.: 943 79 24 58.

- Emakume bat behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko, Uribe auzoan. Tel.: 943 77 03 05

- Neska bat behar da arratsaldeko 16:30etatik 20:00etara umeak zainzeko. Tel.: 943 79 47 85

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

- Irakasle tituludunak eskola partikularrak ematen ditu. Tel.: 943 77 17 42.

- Ingeles eskolak emango dira urriaren 1etik aurrera. Tel.: 943 79 18 70.

- Psikologoak laguntza emateko gertu. Tel.: 943 79 86 28.

- Gitarra eskolak eskaintzen dira, solfeorik gabe edo solfeorekin. Klasiak edo laguntzeko. Merke. Tel.: 943 79 07 64.

- Eskola partikularrak ematen ditut. Euskaraz zein gaztelaniaz. Tel.: 943 79 36 93. Patricia.

21. Eskaerak

- Estatistikako eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 79 12.

- Paleografia eta Diplomatiako eskolak jasoko nituzke. Tel.: 943 79 94 92. Pilar.

- Irakasleak behar ditugu modalitate guztientzat. Helbidea: Doktor Cristobal. Tel.: 943 77 04 67.

- Kontabilitateko eskola partikularrak hartuko nituzke larunbatetan. Deitu asteburuetan. Tel.: 943 7930 39.

MOTORRA

23. Saldu

- Derbi GPR Sport 75 cc salgai dago. Modu onean. TEL.: 943 79 67 50.

- Lada Niva 4x4, 1.700 injekzioa, SS-AX salgai. Urte eta erdi eta 200.000 pta extratan. Prezio interresgarria. Txakurrentzako gurdia oparitzen da. Tel.: 943 77 00 39.

DENETARIK

26. Saldu

- Sofa-ohere bat salgai. Berria da. Prezio onean. Tel.: 943 79 03 59.

- Errepideko bizikleta saltzen dut, 15.000 pta. Tel.: 943 79 60 81.

- Errepideko bizikleta salgai. Karbonozko koadroa eta 55eko neurrikoa. Piezak Campagnolo markakoak dira. Merke. Tel.: 943 79 87 10 (21:00etatik aurrera).

- Komuneko altzari eta osagarriak salgai. Merke. Tel.: 943 79 19 99. Mariluz.

27. Erosi

- Disko singleak eta LPak erosten ditut. Tel.: 943 52 65 77.

- Bigarren eskuko klarinetea erosi nuke, egoera onean balego. Tel.: 943 79 95 24 (arratsaldeko 18:00ak arte. Axun.

29. Eman

- Lau hilabeteko txakurkumeak opa-

ritzen ditut. Tel.: 943 79 75 31. Asier (gauez).

31. Galdu

- Irailaren 12an, larunbat gaueko 24:00etan Elorrixora joan ginen autostopez eta poltsa beltz bat ahaztu genuen autoaren barruan, orjigarri garrantzitsuekin. Mesedez, Arrasateko Udaletxera eraman.


- Urrezko betaurrekoa galdu nuen larunbatean, 19an. Sarituko da. Tel.: 943 79 12 95.

33. Bestelakoak

- Osatzeko tratamendu naturalak ematen dira. Reiki sistema. Mota guztietako gaixotasunak. Tel.: 943 79 45 74

- Lau gazte gara, gure autojestionari- nekazaritza eta eskulangintza proiektuak ditugunak. Beraz, gustura hartuko genuke berritzeko dagoen baserri zahar bat. Tel.: 943 79 48 09 (Itziar).

Kalitateak mugarik ez.



ARGI-PLASTIC

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa
Zigorrola, 1 8. Pabeiloia
Tel.: 943 77 11 30
ARRASATE

Truke Operazioa


Amuebladora Mondragonesa

EKARRI ZURE
KOLTXOI ZAHARRA...



...ETA 10.000 PTA
ARTEKO BEHERAPENA
izango duzu zure Atsedean
Sistema Berrian

FLEX



Loa kenduko ez
dizuten prezioak.
Zatoz eta galdetu!

grupo



**Amuebladora
Mondragonesa**

a. eme. interiores, Garibai, 9 ARRASATE
centro hogar muebles, Zigarrola, 1 ARRASATE



Badakizu? Arrasateri buruzko galdera-erantzunak

Urriaren 5ean programazio berria estrainatzen duenean, ATBk tarte berezia irekiko du. *Badakizu?* du izena eta Mondragoeri buruzko galderek eta jakingarriek osatuko dute.

IGARTZEKOAK

Aldiko minutu erdi iraungo du, hogeita hamar segundu. Tarte horretan galdera bat egingo da kolore batean, beti ere Arrasaterekin edo arrasatearrekin zerikusirik duena. Aldi berean, hiru erantzun azalduko dira, bese kolore batean. Ikusleak hamabost bat segunduz izango ditu erantzun zuzena bilatzeko. Hau azken segunduetan agertuko da, beste biak desagertzen direnean.

Esate baterako, zein da orrialde honetako pantailan agertzen den galderaren erantzun zuzena? Mohamedia, noski. Galdetu bestela Ugarte eta lurralde hartan dabilzan

Badakizu?

Marokoko zein hiritan du Fagorrek hozkailu fabrikarik handiena?

- Rabat
- Casablanca
- Mohamedia

mondragoetarrei.

Gai askoren inguruko itaunak prestatu dira: kultura, ekonomia, historia, artea, pertsona ospetsuak, *Arrasate Press*, ATB... Egunean bi agertuko

dira, albistegiaren eta beste saioen artean.

Astelehenetan hiru izango dira, Mondrasporten aurretik edo ondoan kirolarekin lotutako beste bat agertuko da eta.

JAKINGARRIAK

Badakizu? tarteko batzuk ez dira igartzekoak izango, baikik eta jakingarriak. Esate baterako: "Arrasatek 24.257 bizilagun ditu. Horixe dio 1998ko urtarrilean egindako erroldak. Horrek esan nahi du Arrasatek 314 bizilagun galdu dituela azken bi urteotan".

Arrasateko egunerokotasunaren atal bat edo beste azalduko dira jakingarri hauetan.

Bai igartzekoak zein jakingarriak tarte politika izango dira. Laburrak eta mamitsuak. Beti ere musika jakin batekin, ikusleak berehala antzeman dezan *Badakizu?* tokatzen dela. Gai guztiek Arrasaterekin dutenez lotura, seguru gaude ikusleek ondo pasatuko dutela trivial antzeko honekin. *Made in Arrasate*.

■ ATBko programazioa

LARUNBATA, 26	ASTELEHENA, 28	ASTEARTEA, 29	ASTEAZKENA, 30	OSTEGUNA, 1	OSTIRALA, 2
	20:00/20:30/21:00 Berriak.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	20:00/20:30/21:00 Berriak.

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiraletan 5etatik 8etara.
Tel.: 943 79 26 99

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

... **LILURIA** ...
OIHALAK
Denboraz prestatu Maritxurako jantzia
Zerkaosteta, 5 - Behea • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 72



Argazki honek 35 bat urte izango ditu. Garagartzan aterata dago, Anten etxe aurrean. Orduan, Anten aurrean bi harri handi zeuden, orain plazan daudenak. Eskuineko harriaren gainean gaur egun lamina dago eserita; beste harria, zutik dagoena, harro-

bi aldean dago, urrutiago.

Agertzen diren pertsonak, berriz, ezkerretik hasita honakoak dira: Rosita Uribarren, Begoña Heriz, Axun Arana, Karmentxu Aldabaldetrekua eta Purita Otxoa.

Erdiko biak, Axun eta Karmentxu, kanpoan bizi ziren; lehenengoa Errenterian, Frantzian bigarrena. Orduan ohitura zen bezala, Garagartzara

Sanmikelak pasatzera etortzen ziren euren ahaideen etxeetara gonbidatu.

Auzoan sekulako giroa egoten zen. Denak gogoratzen dute esate baterako nola joaten ziren erromerian Santa Agedaraino, soinujole eta guzti. Bueltan, Perikin aurrean (gaur Belun dagoen tokian) gelditu eta dantza egiten zuten. Hareik sasoiak!

Argazkia eta informazioa:
 Karmele Zuazubiskar

bake prozesua eraiki

eraiki programa aurrera bultzatzeko, **elkarri** gizahabea arte lana atera da.

Serie mugatua, egurrean eta zeramikazko inkrustazioarekin, egileak sinatuta. 285x160x110 mm.

elkarri

12.000 pztatan lor dezakezu gizahabea arte lana, enpresa opari, sari, lagunentzako opari edo etxerako.

Laguntzea nahi baduzu, deitu 943 796867 telefonora.



Egilea: **JUAN GORRITI**

**ONGI ETORRI
ARRASATERA!**

**GALLOPER
KONFORT
Udaltzaingoaren
auto berria**

Eldi bi

Zigorrola, 1 • ARRASATE
☎ 943 71 20 02 / Faxe: 943 79 65 65

GALLOPER
Almovil S.L.

Handik zehar zihoa
Ondarruko gizon be


Gizon bat mendeko tulla

Udaltzainaren emaztearen psikoanalista

Udaltzainaren emaztea

Udaltzaina

Lapurra



**GALLOPER KONFORT 2.5 TDI 3 AT
2.795.000 Pta**
Itxigailu zentralizatua / Kristal-jasogailu elektrikoak
Lagunduriko direkzioa / Aleaziozko hagunak...

**GALLOPER KONFORT 2.5 TDI 5 AT
3.195.000 Pta**

iKOFER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

Errealitate
bihurtzen diren
ilusioak